



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko elementuak dira enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-proposameneko eskaintza garatzeko, bezeroengana iristeko, haiekin harremanak izateko eta diru-sarrerak sortzeko balio du. Hainbat motatako funtzeko baliabideak daude: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

Gure baliabide intelektualak eta giza baliabideak asko laguntzen digute gure proiektua aurrera eramateko. Jon, elektrikari karrera egin du eta oso abila da bere lanean. Hasieran, autobus gutxi batzuetan jarri beharko zirenez, berak bakarrik egingo luke lan hori.

Horretaz gain, Maider finantzak ikasi ditu, orduan, enpresako ekonomiarekin arduratuko zen: berak kalkulatu zituen sarrera eta gastuak, hau da, enpresako irabaziak; berak erabakiko zuen zein enpresarekin egingo genuen lan, errentagarria izango litzatekeen aztertuko luke.

Azkenik, Igone, antolaketarako eta salmentarako abila da, marketing ikasketak egin dituelako. Igone arduratuko zen bezeroekin harremanetan jartzea eta beraiekin biltzea akordio batera heltzeko.

Ditugun baliabide fisikoak, urriak dira, baina, gure lanarentzako nahikoak. Lehenengo, *Opanieleko* denda daukagu, gure hornitzailea izango zena, eta bertan gure bonbillak gordeko genituzke. Bigarren, *Cronorenteko* furgoneta daukagu, gure zerbitzua bezeroei eramateko. Eta azkenik, Jonek elektrizitaterako behar duen materiala izango lirateke gure baliabide fisikoak.

Gure finantza-baliabidea, Eusko Jaurlaritzako subentzioa izango litzateke. Hasierako autobus konpainiak publikoak direlako. Gero, diru sarrerak handitzen direnean, autobus pribatuei eskeiniko genieken gure zerbitzuak, irabazi gehiago lortzeko.